

Relato de Navidad

Érase una vez un granjero que no creía en Dios. Su mujer, en cambio, era creyente y educaba a sus hijos en la fe en Jesucristo, a pesar de los reproches e ironías de su marido. Una Nochebuena en la que estaba nevando, la esposa se disponía a llevar a los hijos a la Misa de Gallo, e invitó a su esposo a que los acompañara, pero él se negó.

-¡Qué tonterías! -arguyó-. ¿Por qué Dios se iba a rebajar a descender a la tierra haciéndose hombre? ¡Qué ridiculez!

Los niños y la esposa se marcharon y él se quedó sólo, en medio de la granja en la que vivían.... Al poco rato, se desató una fuerte ventisca. Observando por la ventana, todo lo que aquel hombre alcanzaba a ver era una cegadora tormenta de nieve. Decidió relajarse sentado ante la chimenea, pero al poco tiempo escuchó golpes violentos en las ventanas. Miró hacia afuera, y como no era capaz de distinguir nada, se aventuró a salir para averiguar lo que estaba ocurriendo. Junto a su casa, una bandada de gansos salvajes se había visto sorprendida y atrapada por la tormenta de nieve. Incapaces de continuar su ruta, los gansos volaban bajo en círculos y sin rumbo, cegados por la borrasca. El agricultor dedujo que algunas de esas aves habían chocado contra su ventana... Sintió lástima de los gansos y quiso ayudarlos.

-¡Se podrían quedar en el granero! -pensó-. Ahí estarán al abrigo y a salvo durante la noche mientras pasa la tormenta.

Dirigiéndose al granero, abrió las puertas de par en par. Luego, permaneció observando, con la esperanza de que las aves advirtieran el lugar donde podrían resguardarse. Los gansos, no obstante, se limitaron a seguir revoloteando en círculo. No parecía que se hubieran dado cuenta siquiera de la existencia del granero y de lo que podría significar para ellos en esas circunstancias. El hombre intentó llamar la atención de las aves, pero solo consiguió asustarlas y dispersarlas en todas las direcciones... Entró a la casa y salió con algo de pan. Lo fue partiendo en pedazos y dejando un rastro hasta el establo. Sin embargo, los gansos no entendieron.

El hombre empezó a sentir frustración. Por mucho que lo intentaba, no conseguía atraerlos hacia el lugar donde habrían de estar abrigados y seguros.

-¿Por qué no me seguirán? -se preguntó- ¿Es que no se dan cuenta de que ese es el único sitio donde podrían sobrevivir?.... Tras reflexionar por unos instantes, cayó en la cuenta de que las aves no seguirían a un ser humano.

-Si yo fuera uno de ellos, entonces me seguirían y podría salvarlos -dijo, pensando en voz alta-.

Seguidamente, puso en práctica una estrategia: Entró al establo, agarró un ganso doméstico de su propiedad y lo llevó en brazos, paseándolo entre sus congéneres salvajes. A continuación, lo soltó. Su ganso voló entre los demás dirigiéndose directamente al interior del granero. Una por una, las otras aves lo siguieron hasta que todas estuvieron a salvo... El campesino se quedó en silencio por un momento, mientras las palabras que había pronunciado hacía unos instantes aún le resonaban en la cabeza:

-¡Si yo fuera uno de ellos, entonces sí que podría salvarlos!

Entonces recapacitó sobre lo que le había dicho a su mujer aquel día:

-¿Por qué iba Dios a querer ser uno de nosotros? ¡Qué ridiculez!

¿No había sido precisamente esta misma la pedagogía de Dios, que le llevó a compartir nuestra condición humana, socorriendo nuestra desorientación en medio de la tempestad de la vida?

Al tiempo que comparto contigo este relato navideño, te deseo que este día santo de la Navidad sea una oportunidad para introducirte en un misterio de fe, ante el cual no cabe mirar

para otro lado... ¿Cómo explicar nuestra indiferencia ante la mejor noticia de todos los tiempos: la encarnación de Dios y su nacimiento en Belén? Más aún, ¿cómo entender que algunos puedan percibirlo como una intromisión en su libertad? ¿Acaso pueda ocurrirnos como al animal herido, que ataca a quien se acerca a socorrerle, porque no es capaz de distinguir entre quien le ha herido y quien quiere curarlo? ¿Acaso la acumulación de decepciones haya podido provocar en nosotros la desconfianza en la gratuidad del amor de Dios?... Sí, a buen seguro que hay explicaciones que contextualizan la secularización de nuestra cultura, de antigua tradición cristiana... Pero esas explicaciones no llegan a la categoría de razones para que permanezcamos indiferentes ante el gran don de Dios al mundo: Jesucristo.

A inicios del siglo V, un día de Navidad, San Agustín pronunciaba un sermón del que guardamos noticia:

“Despiértate: Dios se ha hecho hombre por ti. Despierta, tú que duermes, levántate de entre los muertos, y Cristo será tu luz. Por ti precisamente, Dios se ha hecho hombre.

Hubieses muerto para siempre, si Él no hubiera nacido en el tiempo. Nunca te hubieses visto libre de la carne del pecado, si Él no hubiera aceptado la semejanza de la carne de pecado. Una inacabable miseria se hubiera apoderado de ti, si no se hubiera llevado a cabo esta misericordia. Nunca hubieras vuelto a la vida, si Él no hubiera venido al encuentro de tu muerte. Te hubieras derrumbado, si Él no te hubiera ayudado. Hubieras perecido, si Él no hubiera venido.”

Te deseo una Feliz Navidad, en la que celebres con plena consciencia la Natividad de Jesús. Te deseo un Feliz Año 2019, recordando que nuestro calendario cuenta los años a partir del nacimiento de Jesucristo, centro y sentido de la historia. Eguberri on eta Urteberri on guztiontzat. Zorionak bihotzez!

Eguberri ipuina

Behin batean, bazen nekazari bat Jainkoagan sinesten ez zuena. Haren emaztea, berriz, fededuna zen, eta, senarra kontra bazuen ere eta isekaz hartu arren, Jesu Kristoganako fedean hezten zituen seme-alabak. Elurra ari zuen Gabon gau batean, emazteak gauerdiko Mezara eramán nahi zituen seme-alabak eta bera ere etortzeko gonbita egin zion senarrari, baina ez zuen nahi izan.

-Txorakeriak!, –esan zion—. Zer dela-eta jaitsi behar zuen Jainkoak zerutik lurrera eta gizon egin? Hori ergelkeria!

Gauzak horrela, joan zen emaztea bere haurrekin, senarra, berriz, bakarrik gelditu zen etxean... Handik gutxira, izugarrizko haize-bolada sortu zen. Leihotik begira jarri eta ez zuen elur-erauntsi itsu-itsua besterik ikusten. Sutondoan eserita lasai egotea erabaki zuen, baina berehala danbateko gogor batzuk entzun zituen leihoetan. Kanpora begiratu eta ezin zuen ezer garbi ikusi; orduan etxetik ateratzea pentsatu zuen, zer gertatzen ote zen jakiteko. Etxe ondoan, elur-erauntsiak ustekabeen harrapatu zituen basantzara-pila bat zebilen. Ezin zuten bidean aurrera jarraitu eta oso behean zebiltzan hegan, jirabiraka noraezean, ekaitzak itsututa. Nekazaria konturatu zen antzara horiek izan zirela etxeko leihoak jo zituztenak... Pena eman zioten antzarek eta lagundu egin nahi izan zien.

-Ganbaran geldi daitezke! –pentsatu zuen—. Han babesa izango dute gauean ekaitza baretu arte.

Hala, ganbarako ateak parez pare zabaldu zituen. Ondoren, begira gelditu zen, hegazti haiek babeslekura sartuko zirelakoan. Antzarek, ordea, hegan jarraitu zuten jirabiraka. Bazirudien ganbara zegoenik eta, zeuden egoeran, ganbara haientzat babesleku ona izan zitekeenik ere ez

zirela ohartu. Ahaleginak egin zituen gizon hark hegaztiak erakartzeko, baina beldurtu egin zituen eta alde guztietara sakabanatu ziren... Berriri etxera sartu eta ogi pixka batekin atera zen. Ogi-pusketak egin eta ganbara bitarteko bidea markatu zien. Antzarek, ordea, ez zuten hori ulertu.

Etsipenean erortzen hasi zen gizona, ezin baitzuen inola ere asmatu. Eginahalak egin arren, ezin zituen babesleku seguru hartara eraman.

-Zergatik ez ote didate jarraitzen? –galdetu zion bere buruari–. Ez ote dira konturatzen, hori dela bizirik iraun ahal ziateko babes segurua izan dezaketen leku bakarra?... Pixka batean horrelako pentsakizunetan egon ondoren, konturatu zen hegaztiak ez ziotela gizakiari jarraituko.

-Ni horien arteko bat izango banintz, orduan, bai, jarraituko lidakete eta nik salbatu ahal izango nituzke –esan zuen edozeinek entzuteko moduan–.

Berehala, egintzara eraman zuen bere asmoa: Oilategian sartu, etxeko bere antzara bat besoan hartu eta basantzaren artean utzi zuen. Etxeko antzarak hegan egin zuen besteekin batean eta zuzenean ganbaran sartu zen. Bata bestearen ondoren, antzara guztiek jarraitu zioten eta denak babesa lortu zuten... Une batez, isilik gelditu zen nekazaria, lehentxeago berak esandako hitzak hausnartzen:

-Ni horien arteko bat izango banintz, orduan, bai, salbatu ahal izango nituzkela!

Eta egun hartan emazteari esan zionaz pentsatzen jarri zen:

-Zer dela-eta nahi izan behar zuen Jainkoak gure arteko bat izan? Hori ergelkeria!

Baina, ez al zen hau bera izan Jainkoaren pedagogia: gure giza izaera bera hartzea, alegia, bizitzako ekaitzaren erdian bidea galduta gabiltzanoi babesa eta laguntza emateko?

Eguberri-ipuinen honen bidez zurekin solasean ari naizen honetan, Eguberri-egun santuan fedeko misterioa sakontzeko aukera izatea opa dizut; ez dezazula albora begiratu... Nola daiteke, inoiz izan den albisterik onenaren aurrean, hau da, Jainkoaren gizakundearen eta bera Belen jaiotzearen aurrean guk axolarik ez izatea? Gehiago oraindik, nola daiteke, hori zenbaitek bere askatasunaren urratzea bezala ulertzea? Badirudi zauritua dagoen animaliarena gertatzen zaigula guri ere, eraso egiten diola laguntzera hurbiltzen zaionari, ez baitu bereizten zauritu duenaren eta sendatu nahi duenaren artean. Bizitzan izan ditugun etsipenek mesfidantza sortu ote digute, Jainkoak onginahi hutsez digun maitasunaren aurrean?... Zalantzarik gabe, izango dira zergatiak aspaldiko kristau-tradiziotik datorren gure kulturaren sekularizazioa esplikatzeko dutenak. Baina zergati horiek ez dira benetako arrazoi Jainkoak Jesu Kristogan munduari egin dion dohain handiaren aurrean axolagabe izan gaitzen.

Honela zioen San Agustinek 412-416 urte arteko Eguberri-egun batean egindako sermoian:

“Esna zaituzte: Jainkoa gizon egin da zuegatik. Esna zaituzte, lo zauden hori, jaiki hildakoen artean eta Kristok argituko zaitu. Zuegatik gizon egin da, hain zuzen, Jainkoa.

Hilko zinen zu betiko, bera gure bizitzaldi honetan jaio izan ez balitz. Ez zinen zu bekatuzko izaeratik behin ere libratu izango, berak gurea bezalako bekatuzko izaera hartu izan ez balu. Izugarritzko behar gorrian geldituko zinen, Jainkoak bere errukia erakutsi izan ez balu. Ez zinen inoiz bizira etorriko, bera zure heriotzarekin topo egitera etorri izan ez balitz. Lur jota geldituko zinen zu, berak lagundu izan ez balizu. Galduko zinen zu, bera etorri izan ez balitz.”

Eguberri-jai onak opa dizkizut; zentzu betean ospa dezazula Jesusen Jaiotza. 2019. Urteberri ona izan dezazula; gogoan izan gure egutegiak Jesu Kristoren jaiotzarekin hasten duela urtea, bera delako historiaren erdigunea eta zentzu betea ematen diona. Eguberri on eta Urteberri on guztiontzat. Zorionak bihotzez!